



ATAUNGO UDALA

Bandoa ATAUN

BASERRIEN AZTERKETA TEKNIKOA


Ekainaren 8an argitaratutako bandoan adierazi genuen errepide ondoan ez dauden baserriek ez daukatela azterketa teknikorik aurkeztu beharrik. Informazio hura osatze aldera eta gehiago zehazte aldera, kasu hauetakoren batean dauden baserriak salbuetsita da oraingoz Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT) egitetik:

- Erabilera publikoko gune edo bide batera ematen duen fatxadarik ez duten familia bakarreko bizitegi-erabilerako eraikinak. Kokapen plano bat eta argazkiak aurkeztu beharko dira Udaletxean datu-basea aldatzeko.
- EAEko Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorretan inskribatuta egon (txartel berdea) eta eraikina erregistro horri lotuta daukatenak. Txartel berdea aurkeztu beharko da Udaletxean datu-basea aldatzeko.
- Berrikuntza orokorra egin zaien eraikinen eraikuntza data berrikuntza egin zenekoa izango da. Beraz, data horretatik aurrera 50 urteko epea daukate EATA egiteko. Lehenengo okupazio baimena, arkitektura proiektua eta obra amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko dira Udaletxean datu basea aldatzeko.

LURPEKO APARKALEKUEN ZOZKETA

Urtero bezala, aurten ere zozketa egingo da San Martingo plaza azpiko aparkalekuan urte osorako lekua hartu nahi duten herritarren artean. 365 euro ordaindu behar da. **Uztailaren 16a (berau barne) baino lehen eman behar duzue izena, Udaletxean (udala@ataun.eus / 943180011) Zozketa uztailaren 20an (asteartea) egingo da, 19:00etan, udaletxeko pleno aretoan.**

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala

**“BIZITZAK ERDIGUNEAN. ATAUNGO ZAINZAILAILEEN
GENEALOGIA FEMINISTA” LIBURUA SALGAI**

2019ko Joxemartin Apalategi Begiristain Bekaren emaitza esku artean daukagu dagoeneko. Jone Arrazola Maiztegik eta Miren Aranguren Etxartek egin dute ***Bizitzak erdigunean: Ataungo zaintzaileen genealogia feminista (1950-2020)*** lana, eta Ataungo Udalak argitaratu du. Datorren astetik aurrera udal-liburutegian, udaletxean, herriko dendetan eta tabernetan erosi ahal izango duzue 10 euroan.

UZTAILAREN 10EAN, PAILAZOAK ETA MUSIKA AIAN

Aurten ere ezin izango ditugu auzoetako festak beti bezala ospatu, baina **uztailaren 10erako bi ekitaldi** antolatu ditu Aiako festa-batzordeak. Arratsaldeko 16:00etan *Potx eta Lotx* pailazoan emanaldia izango da, eta iluntzeko 19:30ean Idoia Asurmendi. Aforo mugatua izango denez, **gonbidapenak eskuratu beharko dira uztailaren 4an, igandea, 11:30-13:00 bitartean Aiako plazan**. Pertsona bakoitzak gehienez 4 gonbidapen jaso ahaliko ditu ekitaldi bakoitzerako.

GARAIZ AURKEZTU ESKARIAK, MESEDEZ


Astero hainbat eskari jasotzen ditugu udaletxean, dela udalaren eraikinen bat erabiltzeko, dela udalaren tresneria erabiltzeko, dela beste edozertarako. Halako eskariren bat egin behar baduz

ue, mesedez, **gogoratu hamabost egun lehenago** sartu behar duzuela udaletxean, bestela, batzuetan larri ibiltzen gara-eta dena behar bezala prestatzeko. Komeni da eskaerak **Ataunapp**-aren bidez egiteko ohitura hartzen hastea. Aplikazio hori oraingoz elkarreentzat dago erabilgarri, baina irailetik aurrera herritar guztiok izango dugu aukera erabiltzeko. PlayStoretik eta AppStoretik deskargatu dezakezue, besteak beste.

Horrez gain, gogorarazi nahi dizuegu **gimnasiara joateko txanda** hartu behar dela, aldiko **gehienez bi lagun** sar daitezkeela eta **bazkide ez diren pertsonak ezin** direla sartu. Arauak betetzen ez dituenari giltza kenduko zaio aldi baterako.

Ataunen, 2021eko uztailaren 2an.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala

